



2023ko iraila

# 2024KO PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK

## II. FASEA

### Itzultze-txostena



2023ko iraila

## AURKEZPENA

Beste urte batez, Getxoko Udalak abian jarri du parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua.

LEHENENGO FASEA **2023ko otsailaren 9a eta martxoaren 5a** bitartean izan zen, udalerriko getxoztarren ekarpenak eta proposamenak biltzeko. Ildo horretan, prozesuan parte hartu zuten getxoztarren iritzia baliagarria izan zen **2023ko irailaren 7tik 17ra** bitartean egin den BIGARREN FASEari edukia emateko.

Hainbat motatako 1.310 ekarpen jaso ziren lehen fasetik. Ekarpenak teknikoki eta ekonomikoki aztertu ondoren, hurrengo zortzi proiektu hauek proposatu dira herritarrak bigarren fase honetan baloratzeko eta lehenesteko:

### II. FASEAN HERRITARREK LEHENETSI DITUZTEN PROIEKTUAK

PROPOSAMENEN ZERRENDA	AURREKONTUAREN ZENBATEKOA (gutxi gorabeherakoa)
Bolueko belar artifizialeko zelaia eta aldagelak berritzea	550.000€
Txakurren DNA-errolda egitea, gorozkiak jasotzea bultzatzeko	360.000€
Komun publiko gehiago jartzea	250.000€
Faduran erreforma-lanak egitea: spinning gela, aldagelak eta ikasketa-gela	85.000€
Kalisteniko parke bat jartzea	50.000€
Andra Mariko eta Neguriko merkataritza-zonak sustatzeko azterlana egitea	36.300€
Lorategi bertikala sortzea	30.000€
Areetan lokal bat erostea erakusketa-areto gisa erabiltzeko	770.000€

Parte hartzeko, Getxoko herritarrek eta erakundeek puntu 1etik 8 puntura eman behar zituzten planteatutako proiektu guztiak.

Getxoko Udalak 1.000.000 euro bideratu ditu parte-hartze izaerako aurrekontuetara; beraz, ez litzateke posible izango proposatutako proiektu guztiak gauzatzea, proiektu guztien batukari orokorra prozesurako ezarri den zenbatekoa baino handiagoa baita.

Jarraian, parte-hartzearen lehenengo zein bigarren faseetan herritarrek parte hartzeko gaitu ziren bideak azaltzen dira:



2023ko iraila

- Boto-ontziak Algortako eta Areeta-Romoko Herritarren Arretarako Bulegoetan, Fadurako eta Gobelako kiroldegietan, Villamonteko Kultur Etxean, RKEen eta San Nikolas liburutegian.
- Erregistroaren bidez, eta botoa [www.zeugaz.eus](http://www.zeugaz.eus) plataformaren bitartez.
- Algortako, Areetako eta Bidezabalgo geltokien eta Benta inguruan jarri diren postontzietan inprimakia sartuz.
- Proposamenak jasotzeko modulua, honako toki hauetan: Fadurako atarian (egun 1), Areetako geltoki-plazan (2 egun), Bidezabaleko anbulatorioa dagoen plazan (2 egun), Gobela kiroldegiaren sarreran (egun 1), Maidagan parkean (egun 1) eta Algortako geltoki-plazan (2 egun).

#### BIGARREN FASEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Herritarrei zuzendutako aurrez aurreko parte-hartze bideak eta bide digitalak uztartzen dituen metodologiaren bitartez egituratu da parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua. Zehazki, udalerrian errolatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak izan du parte hartzeko aukera, bai eta elkarteek, fundazioek, sindikatuek, enpresa-elkarteek, elkargo profesionalak, zuzenbide publikoko korporazioek eta udalerrian errotuak dauden eta izaera juridikoa duten hainbat arlotako erakundeek ere.

Prozesua ikusaraztea eta hura publiko egitea barne hartzen dituen sozializazioan oinarritu da komunikazio-prozesua:

- Prozesuaren zabalkundea, Getxoberri udal-astekariaren bidez eta komunikabideetako prentsa-oharren bidez.
- Sare sozial instituzionalak.
- Prozesua sustatzeko bideoak.
- Prozesua herritarrei aurkeztea, udalerriko 6 tokitan egon diren dinamizatzaileen bitartez eta stand baten bidez.
- Udal-webgunean nahiz [www.zeugaz.eus](http://www.zeugaz.eus) plataforman jarritako informazioa.

#### BIGARREN FASEAREN EMAITZAK

##### Parte-hartzearen emaitzak

Bigarren fasean, **1.132 baliodun galdetegi** jaso ziren, zortzi proiektuak baloratu.

**Paperean, 935 baliodun galdera sorta** jaso ziren (981 galdera sorta ziren guztira, baina horietatik 46 baztertu izan ziren hainbat arrazoi direla eta, besteak beste Getxon errolatuta ez egoteagatik, oker puntuatzeagatik edo birritan parte hartzeagatik).



2023ko iraila

**Zeugaz** plataformaren bidez, **197** jaso ziren.

Herritarrek bete dituzte formulario guztiak, paperean parte hartu duen erakunde batek izan ezik.

Honako bide hauen bidez jaso ziren galdera sortak:

<b>PARTADIDETZA BIDEAK</b>	
MODULUAK	594
BOTO-ONTZIAK	206
ZEUGAZ	197
POSTONTZIAK	135
GUZTIRA	<b>1.132</b>

<b>POSTONTZIAK</b>	
BIDEZABAL	48
ALGORTA	41
AREETA	35
BENTA	11
	<b>135</b>

<b>BOTO-ONTZIAK</b>	
FADURA	63
VILLAMONTEKO KULTUR ETXEA	33
RKE	32
HAB (ALGORTA)	28
GOBELA	23
HAB (AREETA)	17
SAN NIKOLAS LIBURUTEGIA	10
	<b>206</b>

<b>MODULUA</b>	
AREETA	163
ALGORTA	162
BIDEZABAL	133
GOBELA	60
MAIDAGAN	44
FADURA	32
	<b>594</b>

## Emaitzak eta erantzuna ematea

Parte hartzeko bigarren faseko emaitzak, paperezko eta Zeugaz plataforma digitalekoak puntuazioak batuta, honako hauek izan dira::

PROPOSAMENAK	Paperezko inprimakiaren bidez lortutako puntuak (A)	Zeugazen bidez lortutako puntuak (B)	A+B puntuen batura	Aurrekontuaren zenbatekoa (gutxi gorabeherakoa)
Komun publiko gehiago jartzea	5.531	1.110	6.641	250.000
Txakurren DNA-errola egitea, gorozkiak jasotzea bultzatzeko	4.953	1.104	6.057	360.000
Fadura kiroldegian hainbat eraberritze egitea: spinning aretoa, aldagelak eta ikasketa-gela	4.632	1.097	5.729	85.000
Bolueko belar artifizialeko zelaia eta aldagelak berritzea	4.003	867	4.870	550.000
Lorategi bertikala sortzea	3.872	832	4.704	30.000
Kalisteniko parke bat jartzea	3.715	816	4.531	50.000
Andra Mariko eta Neguriko merkataritza-zonak sustatzeko azterlana egitea	3.710	718	4.428	36.300



2023ko iraila

<b>Areetan lokal bat erostea erakusketa-areto gisa erabiltzeko</b>	<b>3.244</b>	<b>548</b>	<b>3.792</b>	<b>770.000</b>
--	--------------	------------	--------------	----------------

Lortutako emaitzak ikusita, udalak hurrengo adierazi nahi die herritarrei, prozesuaren emaitzak jakinarazteko:

- 2024ko parte-hartze izaerako aurrekontuen proiektuak lehenesteko fasean, hauxe da gehien bozkatu den proposamena: “Komun publiko gehiago jartzea”.
- Milioi euroko mugaren barruan gehien bozkatu diren hurrengo proiektuak honako hauek izan dira: “Txakurren DNA-errola egitea, gorozkiak jasotzea bultzatzeko” eta “Fadura kiroldegian hainbat eraberritze egitea: spinning aretoa, aldagelak eta ikasketa-gela”

Lehenengo hiru proiektuak (**Berde ilunaz** nabarmendu direnak) 695.000 eurokoak dira. Laugarren proiektua gehitu eskero (550.000€), 1.000.000 eurotik gora kokatuko ginateke (aurrekontu parte-hartzaileetan ezarritako muga). Hala ere, aurrekontu osoa aprobetxatzeko, bozketen ordena errezpetatuz, aurrekontu parte-hartzaileak osatuko dira, herritarrek hautatutako laugarren proiektua ere sartu ahal izateko (**berde argiz** markatuta).

Horrela, 2024ko aurrekontu parte-hartzaileen ondorioz garatuko diren proposamenak honako hauek dira:

- 1.- Komun publiko gehiago jartzea.
- 2.- Txakurren DNA-errola egitea, gorozkiak jasotzea bultzatzeko.
- 3.- Fadura kiroldegian hainbat eraberritze egitea: spinning aretoa, aldagelak eta ikasketa-gela.
- 4.- Bolueko belar artifizialeko zelaia eta aldagelak berritzea.

Udalak positibotzat jotzen du aurrekontu partehartzaileetan herritarrek erakutsitako inplikazioa; izan ere, parte-hartzeak goranzko joera izan du aurreko urtearekin alderatuta (bigarren fasean, 2023ko aurrekontu partehartzaileekin alderatuz, partehartzea % 88,98 handitu da).